

# Arratia

"Bidean Gagoz"

10. zk.

2 0 0 7

iraila

TOKIKO AGENDA 21aren gaineko informazio aldizkaria

ARRATIARREKO UDALAREN MURKOMUNITATEK

# Arratia



## Mugikortasun iraunkorraren astea 2007

"Kaleak guztiontzat" lelopean eta mezu argi batekin antolatuko da aurtengo Mugikortasun Iraunkorraren Astea. Gure kaleak autoz gainezka egotetik askatu behar

dira, espazioa motorrik gabeko trafikoari egokituz. Irtenbidea ez da aparkaleku gehiago eskaintzea edo errepide gehiago eraikitzea, baizik eta duten ahalmena mu-

ritztea. Hots, adituen arabera, azken erantzun horren eraginkortasuna nabarmenagoa da iraunkortasunaren bidean aurrerapausuak ematen jarraitzeak.

Oinezkoentzat kaleak, bidegorriak, txirringentzako aparkalekuak... espazioak ez du zertan soilik autoentzatzat izan. Bide eman behar zaie ingurumenarekiko errespetutsuagoak diren beste aukerei. IHOBERen esanetan, edizio honek "autoentzako guneak eta bideak motorrik gabeko trafikoari zuzentzeko eraldatzerantz animatu nahi ditu tokiko agintariak eta airearen kalitatea hobetzearen beharra" nabarmendu. Aldarrikapen horiekin bat egiten du Arratiako Udalek, bere ingurumen politikan integratuz. Horregatik, eta ingurumenari dagokionez denok garelako erantzule, hiritarrek parte hartzerantz animatu nahi ditu, irailaren 16tik 22ra izango den Mugikortasun Iraunkorraren Astea ekitaldietan.

### ARRATIAN HAINBAT EKITALDI ESKAINIKO DIRA

- **IRAILAREN 15a: KANPAINA HASIERA**
  - Merkatean informazio gunea. Bizikletak eta patinak zozketatuko dira partaideen artean.
  - Tren turistikoa Arte eta Areatza artean (garraio publiko gisa erabili ahal da).
- **ASTEAN ZEHAHAR:**
  - Klima aldaketari buruzko dokumental eskaintza.
  - Mugikortasunari buruzko foroak.
  - Bizikleten zozketak.

- "Oinezbusa", eskolara oinez.
- Gainontzeko ekintzak.
- **IRAILAREN 22a: "AUTORIK GABEKO EGUNA"**
  - Areatzan mugikortasun iraunkorraren jaia:
    - Alde Zaharreko sarreraren kontrol sistemaren inaugurazioa, informazioa...
    - Kale animazioa.
  - Hainbat ekintza beste udalerrietan ere.

### BEHIN BETIKO EKINTZA EGITARAUAREN BERRI EMANGO DA



## Zergatik Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea?

Europa osoan bi aldiz (eta arrakastaz) antolatu ondoren 'Nire autorik gabeko hiria' kanpaina, beste ekimen bati ekin genion 2002an: Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea.

### "Nire autorik gabeko hiria!" kanpainatik...

"Nire autorik gabeko hiria!" Europako ekimen gisa ezarri zen 2000. urtean. Aukera horren bidez, ingurumenarekin zerikusia duten gaiek nola eragiten dieten erakuts dezakete hiri parte-hartzaile guztiak. Egun oso batez, irailaren 22an, tokiko agintariak ekintza hauek egiteko aukera dute: hiriguneak beste giro batean aurkeztu eta gune batzuetan motordun zirkulazioa murrizteko ekintza garrantzitsuak ezarri, garraibide iraunkoragoen erabilera bultzatu eta garraibideek ingurumenean duten eraginari buruz herritarrek duten informazioa areagotu.

### ... Mugikortasun Iraunkorraren Astea arte

2002. urtetik, urtero antolatzen da Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea, irailaren 16tik 22ra, eta mugikortasun iraunkorrari zuzenduta dago. Europako Mugikortasun Iraunkorraren Asteak neurri zabal batzuk aplikatzeko aukera ematen du, eta plataforma ezin hobea da tokiko agintariak eta erakunde eta elkarteek honako hau egin dezaten:


- Hiri-mugikortasun iraunkorarekin zerikusia duten politikak, ekimenak eta hobekuntza praktikoak sustatu.**
- Egungo hiri-mugikortasunak ingurumenean eta bizi-kalitatean sortzen dituen kalteei buruz herritarrek duten informazioa areagotzen lagundu.**
- Tokiko eragileen partzuergo aktiboak ezarri.**
- Kanpaina zabal baten partaide izan, eta Europako beste hiri batzuekin helburu bera partekatu.**
- Tokiko konpromisoak azpimarratu hiriko garraio iraunkorraren politika iraunkorrak lortzeko.**
- Behin betiko neurri berriak eta politika iraunkor berriak martxan jarri.**

## Horrela ikusi nahi al dituzu gure kaleak?



## Irtenbidea zure esku dago

## Europako kanpainako zenbait ekintza eta aholku:



- **LANEKO JOAN-ETORRIAK:** Neurriak hartzea mugikortasun iraunkorra sustatzeko laneko joan-etorrietan.
- **MODALITATEAK KONBINATZEA:** Bizikleta eta garraio publikoa sustatzeko neurriak uztartzea.
- **DENONTZAKO GARRAIO PUBLIKOA:** Garraio publikoa sustatzean kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsua da mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna.
- **SEGURTASUNA:** Garraio publikoak gainerakoen aldean eskaintzen duen segurtasuna.
- **INFORMAZIOA BIDAIAK:** Garraioari buruzko datuak eta ordutegiak, informazioa denbora errealean, e.a.
- **ZIKLISMOA ETA LANEKO JOAN-ETORRIAK.**



- **BIZIKLETENTZAKO AZPIEGITURA LANTOKIETAN:** Txirrindulariak dutxatzeko eta arropaz aldatzeko instalazioak jarretzea, bizikletak seguru eta babestuta aparkatzeko instalazioak jarretzea.

### Espazio publikoaren erabilera berraztertzen

KALEAK, GUZTIONTZAT hautatu zuten 2007ko Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea gai nagusitzat estatueta-ko koordinatzaileek, Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearen Europar Koordinazioak eta Europako Batzordeak.

Helburua da mezu hau hedatzea: autoei leku gehiago egiteak ez ditu konponduko egungo garraioaren arazoak. Aitzitik, bideetan autoentzako lekua murriztea konponbide eraginkorra eta iraunkorra izan daiteke, eta bizimodu osasungarriagoa izaten lagun diezaieke herritar guztiak, norbanakoen mugikortasuna murriztu gabe. Bestalde, tokian tokiko airearen kalitatea hobetzeko premia ere azpimarratzen du. Hori da, hain zuzen ere, Europako Batasunaren eta kide dituen estaturen kezka nagusietako bat.

### "Zirkulazio lurruntzea" zirkulazioaren indukzioaren orde

Munduko hainbat lekutako esperientziak erakusten dutenez, autoentzako lekua murrizteak ez du zertan auto-pilaketarik eragin inguruko kaleetan. Aztertutako garraio-sareetan gertatzen da "zirkulazio lurruntzea". Ondorioa: ingurumen osasuntsuagoa, alderdi askotatik begiratuta.

- **Autoentzako lekua murrizteak ez du zertan auto-pilaketarik eragin inguruko kaleetan. Aztertutako garraio-sareetan gertatzen da "zirkulazio lurruntzea". Ondorioa: ingurumen osasuntsuagoa, alderdi askotatik begiratuta.**


- **PROBATU ETA OHIKO TXIRRINDULARI BIHURTZEA.**
- **LANERA OINEZ JOATEA.**
- **KALEAK, BIZITZEKO.**
- **ENPRESETARAKO GARRAIO-PLANAK.**
- **HIRIKO ZIRKULAZIO-PLANAK.**
- **ERREGAIA AURREZTEKO JARDUERAK.**
- **"AUTOEK ATSEDEN HARTZEKO" JARDUERAK.**
- **AUTOAN BESTE BATZUEKIN.**
- **APARKALEKU EGOKIAK.**
- **LANERAKO, ARDURAZ ERABILTZEA AUTOA - JARDUERAK.**
- **IBILGAILU GARBIAK.**
- **HIRIA EZAGUTZEA.**
- **TOKIKO SENTSIBILIZAZIO, INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOA.**

## Autoa partekatzeko lagunen poltsa on-line zerbitzuan

Une honetan, web orri berri bat lantzen ari dira ARRATIA 21 eta Arratiako Tokiko Agenda 21entzat eta udazkenerako zerbitzua martxan izango da. Berrikuntzen artean aipatzekoa da autoa partekatzeko eskaintzen duen atala. Antzeko ibilbidea burutu eta autoa partekatu nahi duten pertsonentzat on-line zerbitzua da: lanera joateko, unibertsitatera... Bestelako aukerak ere eskaintzen dira: beste hirietara bidaiatzeko, atzerrira...

**Zerbitzu horrek ingurugiroan eta gizartean hobekuntzak ekarriko ditu:**

- MUGIKORTASUN JASANGARRIaren alde izaera iraunkorra duten neurriak zabaltzeko aukera ematen du.
- Airearen kalitatea babesteko, autoaren arrazoizko erabilerara sustatu, baliabide energetikoen arrazoizko kontsumoa bultzatu eta gasen isurketa murrizten ditu.
- Auto pribatuaz herritarrek arrazoizko erabilerara egitea errazten du.



### Bidaiatzeko lagunak bilatzea

• Bilaketa aktiboak bidaiak partekatzeko. Adinaren, sexuaren, irteera puntuaren, destinaeraren... arabera bilatu daitezke bidaiak.

- Leku zehatzak uztar daitezke (auzoak, enpresa bat, bidegurutze bat...) edo gertaera jendetsuak (San Ferminak, F1eko laisterketak, Rock kontzertuak...) munduko edozein hiritan.
- Zure interesekoa den bidai horretan interesa duen beste erabiltzailearen bat sartuko balitz e-mailak alarma automatikoaren zerbitzua eskaintzen du.
- Nahi den eskalara egokituta, aplikazioak bidaiaren ibilbidea erakusten du mapa bidez.

Web site hau zortzi hizkuntzatan erabiltzeko moduan dago eta erabiltzaileen pribatutasuna babesten du. Harremanetarako datuak ez dira baimenik gabe erakusten.

Zerbitzua iraunkorra da: 24 ordu, asteko 7 egunetan.

## Arratiako eraikin publikoetan eguzki plakak

**Urte honetan Arratiako hainbat eraikin publikotan eguzki plaka fotoboltaikoak ari dira jartzten: Dimako eskoletan, Igorren eta Zeanurin, Areatzako eta Igorreko udaletxeetan eta Areatzako, Arteako eta Bediako pilotalekuetan.**

Ezaugarri gisa guztiak eraginkortasun altuko 32 eguzki-modulu fotoboltaiko dituzte; modulu bakoitzak 1,5m<sup>2</sup>ko azalera du (48m<sup>2</sup> gutxi gorabehera), 5 kW-eko potentzia eta urtean 6.300 kW/h ekoizpena. Ondorioz, eguratsera 12.230kg CO<sub>2</sub> isurtzea ekiditen da eta instalazio bakoitzeko, 6 pertsonen kontsumoaren baliokidea dena urtean.

Ekoizten den energia sarera lortzen da eta lortzen den irabazi ekonomikoarekin instalazioak 10-12 urteren buruan amortizatzen dira.

Proiektu hau, Tokiko Agenda 21en Ekintza Planaren baitan lehentasuna duena, aurrera eramanda hain-

bat udalen eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) arteko hitzarmenari esker. Proiektua Udaletako Energiaren Diagnosiarekin eta Instalazio Eguzki Fotoboltaikoen Azterketa Tekniko-Ekonomikoaren garapenarekin hasi zen.

Kasu guzti horietan, instalazioen inbertsio eta ustiaketa EEEren kontura da eta Udalek edozein momentutan lortu ditzakete. Inbertsio mota hauetarako EEEk berak jartzen ditu Udalen eskura finantziario mekanismoak.

Eskoletako instalakuntzek, gainera, argibide-taula dute ageriko lekuan kokatuta eta haren bidez posible da jakitea denbora errealean energiaren ekoizpena, CO<sub>2</sub>ren isurketatik zenbat aurrezten den eta ikasleen sentsibilizazioa hobetzen duten beste ingurugiro-aspektuak.

Bediako kasua berezia da, EEErekin ere hitzarmena sinatu arren, Tokiko Agenda 21en 2007ko Ekintza Planen barneko ekintzak garatzeko jasotzen diren laguntzen programaren baitan, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro Sailaren laguntzarekin burutzea erabaki baitzuen.

- Behin instalazio guztiak martxan direla urtean 69.930 kW/h ekoiztuko dira eta eguratsera 111.076kg CO<sub>2</sub> isurtzea ekidingo da.

Kasu honetan, instalazioaren ezaugarriak hauek dira:

- Eraginkortasun altuko 150 eguzki-modulu fotoboltaiko dituzte; modulu bakoitzak 1,5m<sup>2</sup>ko azalera du (225m<sup>2</sup> gutxi gorabehera), 20 kW-eko potentzia eta urtean 25.830 kW/h ekoizpena.
- Ondorioz, eguratsera 24.416kg CO<sub>2</sub> isurtzea ekiditen da eta instalazio bakoitzeko 26 pertsonen kontsumoaren baliokidea dena urtean.



## Arratiako Behargintza

Eskualdeko Enplegu eta Garapen Zentroa  
Centro de Empleo y Desarrollo Comarcal

### Enplegu eta formakuntza programa berriak

2007ko irailetik 2008ko abuztura bitartean Enplegu eta Formakuntza Programa desberdinak garatuko dira. Horra eskaintzaren laburpen bat.

Programa	Helburua
Trebea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Geriatria laguntzailea.</li> <li>• Lan Arriskuen Prebentziorako Teknikaria.</li> <li>• ERP Logistikarako Aholkularia.</li> <li>• Negozio Kudeaketa.</li> <li>• Automoentzako kudeaketa orokorraren optimizazioa.</li> </ul>
Landu	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Java Teknologian Aditua.</li> <li>• Planoen Interpretazioa.</li> <li>• Lan-administrazioa.</li> <li>• Haurren Zaintza eskola-jantokietan.</li> <li>• Mantenu elektromekanikoa.</li> </ul>
Prest	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Cisco sareetako teknikaria.</li> <li>• "Catia v.5" bidezko diseinu industrialia.</li> <li>• Finantza Aholkularitza I.</li> <li>• Esku-hartze geriatriko eta psikogizartekoian aditzeko kurtsoa.</li> <li>• Zergen kudeaketan aditua.</li> <li>• Kontabilitate kudeaketan aditua.</li> </ul>

Informazio gehiago nahi izanez gero, Arratiako Behargintzako bulegoetara hurbildu.



Eskola jantokietan haurren zaintzari buruzkoa da programetako bat.